- **Entzutekuak:** Asun Nuñez Bodegako tabernaria jubilatu da.
- **Kultura:** Auzolana, ikastaroak eta azoka Gaztañerretan.

soraluzeko
hamabostekaria **252.** alea
2011ko irailaren 30ean

PIL-PILean

ETAren amaiera Konponbidearen hasiera?

EPOCA-GORO
SUKALDE ETA BAINUGELA ESTUDIOA
San Juan kalea 5. EIBAR • 943 700 216
www.epocasukaldeak.com

SUKALDEAK • BAINUGELAK • PROIEKTUAK • ERREFORMAK • DISEINUA

Izan direlako gara...

Iragana **gogoratu** dezaten bizi izan zutenek
Iragana **ezagutu** dezaten bizi izan ez zutenek

Bidali **argazki zaharrak** aldizkaria@pilpilean.com helbidera,
Pil-pilean Elkartetik pasa edo Iratxo gozodendan utzi!

Baldin badakizu,
ez ahaztu…
protagonisten izenak,
urtea, lekua eta
konturen batzuk!!

Astebetean itzuliko dizkizugu!

PIL-PILEAN

IRATI TREBIÑO

IÑIGO URIBETXEBERRIA

Begiak itxita

Apa Iñigo!

Heldu jaku berriz ataiko aldabiari eraitteko ordua! Antzerkizale eta gaztetxezale amorratua naizenez duela hilabete edo bertan ikusittako antzerki obra bat gomendatzia zan asmua. Baina, tira, aspaldi izan zan hori eta hemen inguruan ez dabe berriz jardungo, beraz, alperrik gomendixua. Ai! behin gogoratuz gero ezin burutik kendu, ordia, eta gaztetxeko oholtza beltzan gainian, bakarrizketa gordinian zebilen aktorian hitz batzuk hor gelditu jataz, ez aurrera eta ez atzera. Begixak ixten ei dittugu ispiluan aurrian jartzen garan bakoitzian. Hala bota zozkun. Begixak itxi biharra dakazue, zuen miseriak ez ikusteko, munduko miseriak ez ikusteko. Eta egixa da, ez da inor hortatik libratuko, biziraupen instintua besterik ez da. Ispilu aurrian jarri eta dana, dan-dana, ikusiko bagendu ez dakit ohetik altxatzeko adorerik bilduko genduken. Ikusiko gendukez gure zittalkeri eta enbidiak, baina hori baino askoz gehixago ikusiko genduke; saldotan erosittako praka parian atzian Bangladesh-eko umien begixak ikusiko gendukez, Perutik ekarrittako platano merkien atzian lurrik gabe laga daben laborarixa, hegazkina hartzen dogun bakoitzian petrolio gosiak bonbardaturiko gorpuak... Amaigabia litzake zerrendia, gosariko kafiak botaguria emateko bestekua. Ez da erreza hau dana bapatian irenstia, baina, ez al da edarra begixetako zapixa noizbait kendu eta gauzei bere izenez deittu ahal izatia?

Ah! Ahaztu aurretik, antzerkixa torturari buruzkua zan. Ez dago ikusi nahi ez dabena baino itsu haundixagorik.

> **“Ez dago ikusi nahi ez dabena baino itsu haundixagorik”**
>
> Irati Trebiño

> **“Bihotzeko tristura sentitzen genuen garai batean. Baina orain, jada oso prestatuta gaude edozein berri jasotzeko.”**
>
> Iñigo Uribetxeberria

Ba nik uste dut hemen ia denak begiratzen direla ispiluaren aurrean. Behintzat goitik beheraino tuneatuta irteten da jendea kalera, itxura ederra emateko asmoz edo...

Bada ordea beste ispilu mota bat. Gustu, neurri eta kolore guztietakoak aurkitu ditzakegu edozein bazterretan.

Esan daiteke munduko gertaeren ispilu direla, eta hein batean halaxe dira. Interesez bapo egindako hitz multzoa, esaldi eta parrafo antzuak. Bihotz-minaren txertoak sortzen dituzten paper mordoxka. Sentsazioan oinarritutako egi-erdi madarikatuak.

Bihotzeko tristura sentitzen genuen garai batean. Baina orain, jada oso prestatuta gaude edozein berri jasotzeko. Hori bai, zenbat eta urrunago hobe. Euskal Herria oso gertu, Espainia eta Frantzia gertu, baina behin Gibraltarretik hegoaldera edota Frantziatik haratago bost inporta zer gertatzen den. Eta zer esanik ez Asiako edozein herrialdegatik. Ez dugu sekula malkorik isuriko haiengatik. Guztiz sentigaitzak bihurtu gaituzte.

Eta txarrena da sufrimendu hori, jada minik eragiten ez digun min erraldoi horretatik bizi direla hainbat pertsona, eguneroko txerto dosi ttikia salduz. Gezurra gezurraren atzetik idatziz, esanez.

Bertolt Brecht hitzetan oinarritutako eta Mikel Laboak abesten zuen kanta zoragarria datorkit gogora: *Batek gose diraueno ez gara gu asetuko, bat iñon loturik deino ez gara libre izango*. Bi giza on hauek sortutako ispluetan gehiago begiratu beharko ginatekeela iruditzen zait.

Ahaztu aurretik muxu bat Irati eta gabon pasa guztioi.

Goguan hartzeko

Begiak asko ikusi eta gutxi sufridu.
Gotzon Garate. Euskal atsotitzak

GUTUNAK

Barkamena herritarrei

Guk, Fernando eta Jefry Cid, barkamena eskatu nahi dugu, herritar batzuekiko izandako susmoengatik (tartean Batzokiko bi langile zintzo), lapurreta baten biktima izan ginenean. Gerora benetako errudunak agertu dira.

Jose F. Cid eta Jefry Cid

Pil-pilean aldizkariko gutunetako irizpideak

- Pil-pileanek beti bermatuko du gutxienez hiru gutunentzako lekua, aniztasuna lortzeko eta gutuna argitaratu nahi duten guztiei aukera eskaintzeko. Ondorioz, hiru gutun daudenean, 1.100 karaktereko luzera izango du gehienez gutun bakoitzak. Bi gutun jaso ditugunean edo bakarra, gehienez 1.900 karaktereko luzera izateko aukera izango du gutun bakoitzak. Karaktere kopurua ez bada irizpideotan azaldutakoa, Pil-pilean aldizkariko erredakzioak mozteko eskatuko dizu.
- Hiru gutun daudenean, norbaitek 1.900 karaktereko gutuna bere horretan mantendu nahi badu, hurrengo alean argitaratzeko aukera izango du, baldin eta beste bi gutun iristen ez badira. Kasu horretan, 1.100 karakterekoa sartzeko aukera bakarrik izango du.
- Zein gutun sartu eta zein kanpoan geratu erabakitzeko gutuna jaso den data kontuan izango da. Bestetik, aurreko alean gutunik sartu ez zuen norbanakoak edo taldeak lehentasuna izango du aurreko alean gutuna sartu zuenaren aurrean.
- Gutun guztiek izenpetuta egon beharko dute, pertsona bakarraren edo gehiagoren izenean edo talde identifikatu baten izenean. Ez da onartuko adibidez, “herriko jubilatu batzuk” edo “auzokide batzuk” edo horrelakorik.
- Gutun guztiek formatu bera izango dute: izenburua beltzez, testua eta egile(ar)en izena(k). Ez da letra NAGUSIRIK edo **beltzezkorik** azalduko testuan.
- Epea: aldizkaria argitaratzen den asteko martitzen eguardia baino lehenago jasotako gutunak bakarrik argitaratuko ditugu.

Pil-pilean

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

SORALUZEKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

bittartetik

Gurutze Ariznabarreta

Ikuspegi baliotsua

Edozeinek izan, hazi eta hezi dezake ume bat. Ez dago azterketarik egin beharrik, ez dago inolako frogarik gainditu beharrik. Ez dio axola zein zaren, nolakoa zaren, nola zauden, zer egiten duzun, ezta zerbait emateko moduan zauden ere, bizitza berri bat sortu dezakezu. Bapatean etxean da, instrukzio libururik gabe, bere goxotasun eta samurtasun guztiarekin, hain txikia, hain ahula, hain, hain... eta gurasook nola hezi erabaki behar dugu, nola jokatu bere sentimentuen aurrean, gatazka, kaxketa eta negarraren aurrean. Lerro hauek aprobetxatu nahi ditut laster Soraluzen izango den Nerea Mendizabal psikopedagogaren hitzaldiak gomendatzeko. Hauetan esperientziak trukatzeaz gain, haurra hezitzeko beste ikuspuntu bat ezagutzeko aukera izango duzue, niretzat oso baliagarria izan dena eta askorentzat izan daitekeena. Ezagutzen ditugun ereduak aldatzea suposatzen du, emozioak eta sentimentuak askatzea, iraultza txiki bat. Bide zaila bezain zoragarria, ni ez ahazten ahalegintzen naizena eta ezagutzea merezi duena. Bukatzeko Nereak gogoko duen esaera bat: "Maite nazazu gehiago gutxien merezi dudanean, orduan behar baitut gehien".

((ENTZUTEKUAK))

Asun Nuñez, Bodega tabernako jabea, jubilatu berri da

Asun Nuñezek 23 urterekin zabaldu zuen Estazio kaleko Bodega taberna senarrarekin batera. Ordutik, seme-alabak zaintzeaz gain, gogotsu eta etenik gabe jardun du 42 urtez jo eta su lanean. Emakume alai eta hizlaria, bezeroa maitatzen jakin izan du. Egun, 65 urterekin jubilatu berri da baina oraindik sasoian, disfrutatzeko garaia duela dio.

42 urtez jardun eta gero alabak hartu du oinordea.

42 urte eman dituzu barra atzian. Zela bururatu jatzuen tabernia zabaltzia?

Pedredo herrixan (Kantabria) jaixotakua naiz eta 15 urtekin etorri nintzan Soraluzera. Senarra ezagutu, ezkondu eta alkarrekin bizitzen gendela, Gregoriton amak tabernako lokala eskaini zoskun. Guri ideia ona iruditu, lokala alokatu eta 1971. urtian Bodegia jarri genduan martxan.

Zelakuak izan ziran hasiera harek?

Gogorrak baina oso hunkigarrixak. Auzoko tabernia danez, auzotarrez betetzen zan eta betetzen da oindiok be Bodegia. Dana martxan jarri arte makina bat izerdi botatakuak gara, bai! Ardaua saltzen genduan eta inguruetako baserrittar mordoxka bat etortzen ziran guregana bazkaltzera. Hasierako bezero horrek eta haren senidiak etxeko dira oin.

Bezero fidelak dittuzue orduan.

Suerte galanta izan dogu guk gure bezeruekin eta jubilazinuakin batera daneri eskerrak emoteko sasoia heldu da. Lagun artian asko izan dira hemen igaro dittugun momentu eta ospakizunak, kantu eta kontuak. Tabernako atiak itxi eta Kintanillak bere soinuakin makina bat bider ipini gaittu dantzan!

Bezeruak horren pozik mantentzeko gomendixorik?

Nik nere bezeruak benetan maitte dittut eta ahal izan doten eta onduen tratatzen ahalegindu naiz. Tabernari lana bete biharreko lan orduak baino gehixago da.

"Bezero asko etxeko dira hemen"

Eta oin jubilatuta, zein asmo dittuzu?

Bizitzaz gozatzeko sasoi betian nago! Familixia bidaiatzera gonbidatu nahi dot oin. Saltsa ikastaruan be emon dot izena eta kakorratzetara engantxatuta nago.

Alabiak hartuko dau oinordia oin. Pozik erabakixakin?

Oso pozik! Senarra oin bost urte hil zan eta tabernia ixtekotan egon nintzan. Pentsatziakin bakarrik gaixotu egitten naiz! Oin alabia barra atzian ikustiak zoriontsu egitten nau.

HNOS. BENITO ANAIAK
Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe
T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26 , 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Epaitegian seme-alabak euskeraz erregistratzeko aukera

Aurreko astetik Soraluzeko Bake Epaitegian herriko haur jaio berriak euskaraz inskribatzeko aukera dago, baita ezkontza eta heriotzak euskaraz inskribatzekoa ere. Hala jakinarazi du Mikel Leundak, udaleko Euskara teknikariak. Orain arte bake epaitegiek ez zuten aukera hori eskaintzen. 2005eko ekainaren 22ko 12/2005 Legeak Erregistro Zibilaren Legea aldatu zuen, inskripzioak euskaraz egiteko eskubidea aitortuz. Hala ere, 2007an egin zen lehen erregistroa euskeraz, Arrasaten. Justizia Administrazioak "Inforeg" izeneko aplikazio informatikoari esker eta epaitegiko langileei dagokion formazioa eman ondotik, aurrerantzean, Soraluzeko Bake Epaitegian hala egin nahi dutenek, euskaraz burutu ahal izango dituzte aipatutako gestioak.

Hasi dira herrian euskarazko erregistroak egiten epaitegiko liburuetan.

Azaroko hauteskundeetako mahaien osaketa

Aurreko eguaztenean egin zuten azaroaren 20ko hauteskundeetarako mahaiak osatzeko zozketa udaletxean. Herrian bozkatzeko egongo diren sei mahaietako ordezkari denen izenak Plaentxia.com webgunean daude ikusgai.

Carlos de Cos Astigarragan saritua

Carlos de Cos argazkizaleak bigarren saria eskuratu du Astigarragako "Sagar Uzta Argazki Rally Digitalean". Urriaren 21ean 125 euro, sagardoa eta diploma jaso zituen Astigarragako Kultur Etxean. 2009an hasi zen argazki rallyetan parte hartzen eta aurten bost argazki rallytan hartu du parte eta denetan lehen hiruen artean kokatu da.

Iturria: Carlos de Cos

Odol emaileei esker ona adierazten

Urriaren 16an 140 inguru odol emaile omendu zituzten, tartean Soraluzeko sei lagun: Maria Rosa Etxeberriak, Ana Gilek eta Xabier Lizarraldek 25 emanaldi egin dituzte, Begoña Aroztegik 40 bider eman du odola eta Bixente Olaizola eta Luis Artolazabalek 50 emanaldi. Zorionak denei!

KZguneko ikastaro berriak

Azaroan arratsaldez zabalduko da KZgunea, 16:00etatik 20:00ra. Ikastaro berriak eskainiko dituzte, Dropbox, Yousendit eta Scrib programen erabilera besteak beste. Bestetik, doaneko antibirusen instalazioa eta erabilera ere ikasteko aukera egongo da bertan. IT txartelak eskuratzeko azterketa datak honakoak dira: azaroaren 3an, 8an, 16an, 22an eta 29an arratsaldeko 18:00etan.

Autobus linea berria Loiuko aireportura

Loiuko aireportura ibilbidea egiteko autobus linea berria jarri dute martxan. Hau, Arrasatetik (Garibai) Bergarara joango da (Ibargarai) eta bertatik, autobidetik, Eibarrera (Egogain). Handik aireportura zuzenean joango da irteeren terminaleraino. Itzulerakoan, Loiuko aireportuko helmugen terminaletik abiatuko da eta geldialdi berberak izango ditu. Txartelak bidaia-agentzietan erosi ahal izango dira honako prezioetan: Arrasate-Loiu: 11,35 €, Bergara-Loiu: 9,80 € eta Eibar-Loiu: 7,45 €. Ordutegi denak:

Komunikazio ikastaroak umeen zaintza zerbitzua eskainiko du

Pil-pileanek, Atxolin Guraso Elkartea eta udalarekin elkarlanean ume eta helduen arteko komunikazioa hobetzeko antolatutako tailerrak zaintza zerbitzua eskainiko du. Modu honetan, gurasoek haurrekin ikastarora joateko modua izango dute. Zerbitzu hau Kukumixoko begiraleek eskainiko dute eta antolatzaileek eskatu dute zerbitzua erabili nahi duten gurasoek aurrez abisatu dezatela. Ikastaroak azaroaren 23an hasi eta beste hiru eguaztenetan jarraituko du, 17.00etatik 19.00etara Zinean. Egun bakoitzean gai bat landuko da, Nerea Mendizabal psikopedagogoak gidatuta. Bestalde Arianne Unamuno, azken bi saioetan umeenganako euskararen transmisioaz arituko da. Ikastaroan azaroaren 11ra arte eman daiteke izena, 943 75 13 04 telefonoan edo euskara@pilpilean.com helbidean. Ikastaroaren edukiak:

Mesedeetako errifen zozketa berria

Mesedeetako amaren jaiak zirela eta Txurruken auzoko lagunek zozketatzeko errifak atera zituzten. Zozketa egin eta lehen zenbaki saritua 3.267a izan zen baina hilabete pasata errifa honen jabea agertu ez dela ikusita, zozketa berria egin dute antolatzaileek. 7.620a da zenbaki saritu berria. Hilabeteko epean irabazlea agertzen bada, Txurruka jatetxean 6 bazkari edo afari aukeran irabaziko ditu.

Ordu aldaketa asteburuan

Asteburu honetan urteko bigarren ordu aldaketa izango dugu. Igande goizaldeko hiruretan ordubiak izango dira.

Soraluze Gogoan saritua "Iniziatibadun helduak. Euskadi 2011" sarietan

Soraluzeko KZgunetik sortutako "Soraluze Gogoan" bloga saritu dute Fundetec, KZguneak eta Telezentroek Eibarren banatutako "Euskadi 2011. Iniziatibadun helduak" sarietan. Honen helburua IKTen arloan nagusiekin egiten den ahalegina saritzea da eta era berean jende heldua informazio gizartera hurbiltzea. Blogak 14 proiekturen artean hirugarren saria eskuratu du. Jesus Mari Barruetabeña, Juan Campos, Luis Felipe Galarraga eta Ignacio Zubizarretak elikatzen dute bloga eta bertan sasoi bateko Soraluzeko kontuak argazkiekin osatuta batzen dituzte. Gaur arte 272 argazkiz eta 9 bideoz osatu dute bloga. Blogaren helbidea: www.soraluzegogoan20.blogspot.com

Blogeko egileak KZgunean.

Kontrargik 25 urte bete eta ospatuko ditu

Kontrargi Argazki Kolektiboak mende laurdena bete zuen urriaren 24an. Urtemuga ospatze aldera, bazkide eta bazkide ohien arteko bazkaria egingo dute azaroaren 19an. Azaroaren 20an Argazki Rallya egingo dute herriko eta inguruko argazkizaleen parte hartzearekin. Bukatzeko, abenduan Juan Ramon Jabory zumaiarraren "Peregrinación por el camino de la Paz" erakusketa zabalduko dute kiroldegian.

Jaietako argazkiak ikusgai

2011ko Santiago-Santa Ana jaietan ateratako argazkiekin erakusketa zabaldu du Kontrargik eta hilaren azkenera arte zabalik izango da.

Ordutegia: Zapatu eta domeka: 12:00etatik 13:30era.

Iturria: Kontrargi

Mikel, Juanma, Isaac eta Alberto, El Castillo lokala prestatzen.

Konponbiderantz bidea eginez

Aieteko konferentzian egin zioten eskariari erantzunez, ETAk urriaren 20an eman zion amaiera 52 urteko jardunari. Iragarpenaren ostean etenik gabekoa dirudien iritzi eta erreakzio emaria etorri da. Gaiaren garrantzia ikusita, hainbat soraluzetarren iritziak batu ditugu ale honetan.

Hiart Arluziaga (Alkatea)

Alkatearentzat herri gisa aro historiko berria abiatzeko unea iritsi da. Uste du ETAren erabakiak ez duela gatazka politikoa desagerraraziko eta herri izaeraren eta erabakitzeko eskubidearen aitortzatik etorriko dela konponbidea. Bere iritziz bi gobernuek ETArekin gatazka politikoaren ondorioei heldu behar diete eta euskal alderdiek arazo politikoari.

Monika Muro (Ezker Abertzalea)

Bere ustez *"erabaki historikoa"* da eta orain eztabaida politikoari heltzeko garaia zabaldu da. Herri bezela aitortua izatea eta etorkizuna libreki erabaki ahal izateak bermatuko du konponbide politikoa. Gatazkak *«sufrimendu handia»* eragin duela eta *«normalizazioa, berradiskidetasuna eta giza eskubide danen errespetuan oinarrittutako bakia»* atzeratu ezinezko zeregina dela aipatu du.

"Herri-izaera eta erabakitzeko eskubidea aitortzetik dator konponbidea"
Hiart Arluziaga

"Eztabaida politikoari heltzeko garaia da"
Monika Muro

"Berradiskidetasunaren aldeko urratsak eman beharko dira"
Iker Aldazabal

"Elkarlana eta errespetuzko elkarbizitza dira gakoak"
Soledad del Bosque

"Estatuek mugitzen hasi behar dute"
Mikel Santiago

Iker Aldazabal (EAJ)

"Ilusioz" hartu du notizia: *"nahiz eta berandu izan azkenian iritsi da. Hainbeste urteren ostian hainbeste hildako, sufrimendu, espetxeratu... zer lortu dau ETAk?"*. Bere ustez, konponbidea lortzeko herri honen behin betiko bake, normalizazio politiko-sozialaren eta berradiskedetasunaren aldeko urratsak eman beharko dira guztien aldetik.

Soledad del Bosque (PSE-EE)

Komunikatua *"esperantza haundiz"* hartu du. Aldi berean, mesfidati agertzen da: *"Egiaz behin-betiko komunikatua bada, zergatik agertu dira burua estalita diktadura amaittu zanetik herri honek jaso daben albiste onena emoteko?"*. Aurrera egiteko elkarlana eta errespetuzko elkarbizitza dira gakoak. *"ETAren indarkeriarik gabeko herria ikusi ezin izango duten biktima guztiak"* gogora ekarri ditu.

Mikel Santiago (EA)

"Ilusioz eta itxaropenez" hartu du komunikatua eta Estatuek mugitzen hasi behar dutela dio: *"Estatuen inmobilismuari eusteko eta euskal gizartiak bere etorkizuna erabakitzeko prozesu bati ezetz esateko aitzakixak amaittu dira"*. Bere ustez, Gernikako Akordioari eta Aieteko adierazpenari jarraituz giza eskubideak bermatzeari heldu behar zaio.

Asier Heriz eta Iñaki Saezen hileta elizkizuna. Azpian Juanjo Urrutiaren senideei omenaldi ekitaldia

Gol enpresan lehergailua jarri zutela salatzeko elkarretaratzea.

1.-Zer iruditu jatzu gizartiaren eta politikarixen erreakzioa?
2.-Barkamena eskatziak zein esanahi dauka zuretzako?
3.-Zein pauso emon biharko lirake elkarbizitza errazteko?

IRAULTZ ARLUZIAGA (AAMeko kidea)

1.- Esperotakoa izan da. Gizarteak arduraz erantzun du. Bilboko manifestazio jendetsua hor dago. Arduragabeak iruditu zaizkit hainbat politikari eta komunikabideren erreakzioak. Gatazka ez zen hasi ETArekin eta ez da amaitzen orain. Euskal Memoria Fundazioaren arabera, azken 50 urteotan, 474 euskal herritar hil, 2.000 zauritu, 25.000 atxilotu eta 10.000 torturatu ditu estatuaren errepresio estrategiak. Hori ezkutatu nahi dute.

2.- Barkamenak prozesu baten ondorio izan behar du. Estatu Espainiarrak eskatu beharko luke barkamena lehenengo, frankismo garaian hasi eta gaur arte eragindako sufrimendu guztiagatik. Dena delakoa dela, elkarrizketa eta errespetua bultzatu behar ditugu hurrengo belaunaldiei begira.

3.- Aieteko adierazpena osotasunean betetzeak eta "Egiaren batzor dea" sortzeak erraztuko luke. ETAk eman du bere pausoa eta orain estatuen txanda da: preso eta iheslariak Euskal Herriratu eta indar polizialak eraman ditzatela, tortura -zentro izan diren kuartelak itxita.

"Aieteko adierazpena osotasunian betetziak erraztuko leuke elkarbizitza"
Iraultz Arluziaga

"Kalte eginaren kontzientzia behar da barkamena eskatzeko"
Xabier Iñurrieta

XABIER IÑURRIETA, (Bakearen Aldeko Koord.)

1.- Orokorrean positiboa izan da, eta hor dago paradoxa! Indarkeriaren alde egon direnak pozarren. Gogora datorkit ETA(p.m.)ak arrazoi berori erabili zuela armak uzteko 30 urte badirela eta egun "bakegile" gisan agertzen zaizkigun ospetsu batzuk aurka agertu zirela. Ordutik ETAk hildakoen zerrenda makabroa bikoiztu baino gehiago egin da.

2.- Barkamenaren gaia oso delikatua eta partikularra da. Bada ETAkide ohien talde txiki bat konpon ezinezko kalteak egitearen errudun direla onartu dutenak eta ETAren biktimekin aurrez-aurre elkarrizketatu eta barkamena eskatu dietenak. Hori bai benetako ausardia! Baina kalte eginaren kontzientzia behar horretarako eta hemen halakorik....

3.- Pistolak isildu eta gero buruak ere desarmatu beharko lirateke. Politikaren kontzepzio fundamentalista baztertu, agresibitatea eta fanatismoa geure burmuinetatik desagerrarazi. Ezin ditugu bestelako pentsakera dutenak etsai bihurtu.

Kronograma

70

- **1974 Eloy Uriarte erbestera (37 urte erbestean)**
- **1976 Vicente Soria Blasco. Soraluzen ETAk erahila.**

80

- **1987 Jose Gomez Solis Guardia Zibila. Gila zubian ETAk erahila.**
- **1988 Sologoengo zentral elektrikoan lehergailua.**
- **1989 Peio Etxeberria preso hartu.**

90

- **1994 Lurdes Txurruka preso hartu.17 urtean preso (Huelva, 1.100 km).**
- **1994 Angel Irazabalbeitia "Txorta". Loiun tiroketan erahila.**
- **1996 Luis Casares. 1996an Baionan erbesteratua hila.**

00

- **2001 Asier Heriz eta Iñaki Saez sakabanaketaren ondorioz hil ziren Avilara bidean**
- **2001 Banco Vizcayan lehergailua.**
- **2005 GOL enpresan lehergailua.**
- **2005 Juan Jose Urrutia erbesteratua hil zen Uruguain**

* **Sindikato Verticalaren** egoitzan ipini zen lehergailua eta **Karakaten** ere hainbatetan ipini izan dira.

* **Lau zinegotzik bizkartzainak** eraman behar izan dituzte herrian: **Javier Nuñez** (1999-2007), **Maria Garmendia** (2007-2011), **Soledad del Bosque** (1995-gaur egun) **eta Patricia Borinaga** (2007-gaur egun).

* Urteotan beste **lau soraluzetar** egon dira **preso.** Danera, **72 lagun** atxilotu dira, horietatik **22k torturak** salatu dituzte.

Abadea

"Oin danon artian eraiki bihar dogu gure herrixa, iritzi danak errespetatuz".

Luis Gomez

Aktorea

"Bakearen alde jo eta su aritu diren guztiak zoriondu nahiko nituzke. Elkar errespetatuz bakarrik lortu ahal izango dugu harro egoteko moduko Euskal Herria".

Jokin Oregi

Plaentxi LH ikastetxeko zuzendaria

"Itxaropen eta poztasun haundia hartu dot. Danon arteko elkarrizketaz lortuko dogu konponbidia".

Miren Aranburu

2002. urtean Antonio Molina Guardia Zibilaren hilketa salatzeko elkarretaratzea

ZER IRIZTEN DOTSAZU?

1.- Zela hartu dozu ETAren iragarpenaren notizia?
2.- Komunikatuaren atzetik ze urrats eman beharko dira?

MIKEL LEUNDA

1.-Pozez hartu neban albistia, ez neban atzoko espero nahiz eta entzuten zan bazetorrela. Etorri da eta hori da inportantiena.
2.-Urratsak emon biharko dittue. Oin egun batzuk Aieten esan moduan, ETAri eta gobernuei gatazkan ondorixuak kudeatzia tokatzen jakue, presuak eta armak. Bestetik, politikuen artian herri honen etorkizun politikuaz berba egin biharko dabe.

AITZIBER MAYO

1.-Oso ondo eta gogoz. Biolentzia inoiz ez dago ondo. Hala eta be, gauzak aldatu bihar dira, ze euskaldunoi falta jakuzen gauzak nok emongo doskuz?
2.-Batzuk hasi dira trufatzen, irabazi egin dabela eta. Uste dot ondio pausuren bat emon biharko dabela, bestela euskaldunok egindako borroka zertarako izan da?

LUIS GOMEZ

1.-Espero genduan notizia zan, pozgarrixa. Sufrimenduzko hainbeste urten ostian, liberazino bat izan da danondako biolentzian mende ez egotia. Gatazkak eta beran ondorixuak finkatzen juan daittezela.
2.-Oin errekontziliazino momentu bat etorri bihar da, zaurixak pixkanaka bi aldietan gainditzeko. Danon artian eraiki bihar dogu gure herrixa, danon iritzixak kontuan hartuz eta inona ezkutatzeke.

TOÑI GOMEZ

1.-Oso ondo pentsau jata ETAn iragarpena. Ondo dago akordixo batera ailegatzia eta eurek amore emon izana.
2.-Ikusiko dogu ze pausu emoten diran, zeinek daki. Bihar dana pasa dedila, eta ahalik eta egokixen eta onduen izan deila. Besterik ez.

Eman zure iritzia sarean .com

16 urtetik gorakoentzat dantza eskolak

Urrats Dantza Taldea hil honetan hasi da fandango eta arin-arina ikasteko 16 urtetik gorakoentzat eskolak ematen, barixakuetan 19:30ean Goiko Eskolan. Azokara bitartean fandango eta ari-arina egingo dituzte eta hortik aurrera bestelako plaza dantzak. Parte hartu nahi dutenek entsegura agertu besterik ez dute.

Kultur ekitaldien agenda

Urriaren 30a arte:

ERAKUSKETA
2011. urteko Santiago – Santa Ana jaiak.
Ordutegia: Zapatu eta domeka: 12:00etatik 13:30era.
Ant: Kontrargi Argazki Kolektiboa

Azaroak 3, eguena:

KONTZERTUA
Fiachras taldearen emanaldia.
22:00etan Gaztetxean.
Sarrerak: 3 euro.
Ant: Gaztetxea

Azaroaren 4tik 12ra:

ERAKUSKETA
Krabelin Pintura Eskolakoen margolanak.
Kiroldegiko erakusketa aretoan.
Astegunetan: 19:00etatik 20:30era
Zapatuetan: 12:00etatik 13:00ra.
Ant: Soraluzeko Udala

Azaroak 18, barixakua:

KONTZERTUA
Iñaki Salvador, Mikel Laboarekin solasean.
22:15ean, Zinean.
Ant: Soraluzeko Udala

Gaztañerrek herriko baserrizaleak batuko ditu

Azaroarekin batera urteroko festa handiak lekua hartuko du herriko kale eta elkarteetan: Gazteñerre. Gaztañerre Eguna baino astebete lehenago izango da zer egin, zer ikasi eta zer ikusi: azoka eguna azaroaren 12an ospatuko da eta Gaztañerre bera azaroaren 15ean. Hilaren 19an herriko basarrizaleen III. Topaketarekin bukatuko dira ospakizunak. Trikitixaren historia, talo ikastaroa eta dastaketak antolatu dituzte besteak beste.

EGITARAUA

Azaroak 7 astelehena: 19:00etan Zinean auzolanari buruzko solasaldia, "Auzolan Ekimena"-ko partaideekin.

Azaroak 8 martitzena: "TTIKIKETA". SOINU TXIKIAREN IBILBIDEAK MUNDUTIK ZEHAR. Carles Beldaren eskutik, 19:00etan Zinean.

Azaroak 9 eguaztena: AEKkoen eskutik TALO IKASTAROA 19:00etan Ibai Eder elkartean.
(Izena emoteko deitu 943 75 13 04 edo idatzi euskara@pilpilean.com-era azaroaren 7a baino lehen).

Azaroak 10 eguena: Kontsumo taldeak ezagutuz, EHNE eta Biolurrekin 18:30ean Plaza Zaharreko karpan.

Azaroak 12 zapatua: AZOKA EGUNA
9.00etan: Baserritarren eta artisauen AZOKA IREKIERA txalaparta-adar hotsekin.
10.00etan: Haurrentzat JOLAS eta ESKULANAK Kukumixoren eskutik, kiroldegiko frontoian.

Goizean zehar, KALE ANIMAZIOA, DANTZAK, BERTSOLARI IBILTARIAK…
15.00etan: HERRI BABAJANA, Plaza Zaharreko karpan.
19.00etan: ERROMERIA Xero Xiette taldearekin karpan.

Azaroak 14 astelehena: GAZTAÑERRE EGUNA
20:00etan Joxerra Agirianorekin ardo dastaketa olio, gazta eta atunarekin Plaza Zaharreko karpan.
(Sarrerak Bizikaleko komertziotan salgai).

Ondoren, euskara ikasleekin Gaztañerreko KANTU AFARIA Ibai Eder elkartean.

Azaroak 20 domeka: Basarritik basarrira, Soraluzeko basarrizaleen III. TOPAKETA.

Jubilatuen gisatuak lehian

Abelino Ramos eta Abelino Gamazo bikoteak irabazi zuen Itxaropena Elkarteak urriaren 27an antolatutako gisatu txapelketa. Guztira zortzi bikotek lehiatu zuten. Gero mahaiaren bueltan 105 lagun batu ziren eta egunari bukaera eman zioten arratsaldeko bingo bereziarekin.

Hiru herritar Donibane Lohitzune-Hondarribi maratoi erdian

Iñaki Ruiz, Xabier Lijo eta Gonzalo Arizbanarretak 21,1 km-ko Euskal Herriko maratoi erdian hartu zuten parte aurreko domekan. Hondarribia Kirol Elkarteak antolatzen duen lasterketa honetan 2.300 lagunek eman zuten izena baina 1.917k lortu zuten helmugara heltzea. Iñaki Ruiz izan zen 1:24:22ko denboran helmuga zapaldu zuen herriko lehena, 53. postuan. Atzetik, hamar minutuko tartearekin, 241. postuan Xabier Lijo sailkatu zen eta azkenik Gonzalo Ariznabarreta heldu zen, Xabier baino bost minutu beranduago, 444. postuan.

Iturria: Diario Vasco

Iñaki Ruiz helmugaratu berri.

Joseba Garcia Renault Turbo ligaxkako buru da

Joseba Garciak aurreko domekan bere Renault 5 GT Turboarekin izandako arazoengatik ezin izan zuen Urrakira igoeran lehiatu. Orain arteko lehia denetan fin ibili da ordea eta Renault Turbo ligaxkako buru izatea lortu du, 60 puntu batuta. Euskadiko mendiko txapelketako sailkapen orokorrean, berriz, 14. postuan dago, 40 punturekin. Azaroaren 19an Eibarren burutuko den "Rally Corte Ingles" lasterketa izango da pilotu soraluzetarraren hurrengo lehia.

Erregional Preferenteak lidergoari eusten dio

Erregional Preferenteak bina berdindu zuen azken jardunaldian eta eskuratutako puntu horrek lidergoari eusten lagundu dio. Sailkapeneko buru da, 15 punturekin. Atzetik bi puntura Anaitasun "B" eta 12 puntura Mutriku 12 ditu. "B" Erregionalak seigarren jardunaldian 3-4 galdu zuen Ezozin Urkiren aurka. Azkenak dira sailkapenean, puntu bakarra lortuta. Jubenilak ere azkenengo doaz, puntu bat baino ez dute lortu jokatutako sei partiduetan. Azken neurketa, Aloña Mendi "B"ren aurka, 2-2 berdindu zuten. Kadeteek atseden hartu zuten aurreko asteburuan eta zapatuan Arizmendi hartuko dute Ezoziko zelaian. Kadeteek estrenaitu gabe dute sailkapena.

EMAITZAK

PELOTA

Atxotegi – Irusta 8
Garralda – Otxandorena 22

FUTBOLA

Sora (Erreg. Pref.) – Orioko F.T. 3-2
Eibartarrak F.T. – Sora (Erreg.) 1-1
Sora (Jub.) – Eibartarrak F.T. 7-0
Elgoibar – Sora (Kad.) 9-0
Amaika Bat – Sora (Erreg. Pref.) 2-2
Sora (Erreg. B) – Urki 3-4
Sora (Jub.) – Aloña Mendi 2-2
Kadeteek atsedena

AGENDA

PELOTA

Urriaren 31n astelehena
17:00etan Gernikan
Titin III – Laskurain
Berasaluze VIII – Apraiz

FUTBOLA

Zapatua 29 17:30ean Ezozin
Sora (Erreg. Pref.) – Mutriku F.T.

Zapatua 29 18:30ean Mojategin
Mondragon F.T. – Sora (Erreg.)

Zapatua 29 15:30ean Almen
Arizmendi K.E. – Sora (Jub.)

Zapatua 29 11:30ean Ezozin
Sora (Kad.) – Arizmendi K.E.

Infantilak:
Zapatua 29 10:00etan Ezozin
Soraluze BHI (mutilak) – Usurbil F.T.

Zapatua 29 10:00etan Azkoagainen
Aloña Mendi – Soraluze BHI (neskak)

Alebinak:
Domeka 30 Azkoagainen
Aloña Mendi – Sora (Alebina 1. urtekoa)

Domeka 30 9:45ean Aita Marin
Zumaiako – Sora (Alebiña 2. urtekoa)

MENDIA

Mendi irteeren agurra
Domeka honetan azken irteera egingo dute mendi taldeko lagunek. 9:00etan Estaziño kaletik irten eta trenbide zaharretik Txurrukazpira joango dira eta bertatik Txurrukara. Ondoren San Andreserainoko itzulia egitea dute prestatuta. Urteroko sari banaketa 12:00etan hasiko dela aipatu dute eta irteerok ondo baino hobeto bukatzeko eguerdian babajana izango dute.

Zorion agurrak

Marko Akizu
Urrian 26xan 7 urte! Zorionak politta eta urte askotarako! Muxu askooo, etxeko danon partez!

Unax Sudupe
Urrian 29xan 6 urte! Zorionak mutil haundi eta muxu potolo askoo etxekuen partez!

Irati Perez
Urrian 10ian 10 urte! Zorionak politta eta muxu potolo goxo askoo etxekuen partetik!!

Lander Zubizarreta
Urrian 19xan 7 urte! Jarraittu oin moduan txintxo! Muxu haundi bat etxekuen partez.

Ane eta Marina Gabilondo
Urrian 29xan 13 urte! eta Azaruan 9xan 10 urte! Zorionak eta patxo haundi bat etxekuen partez!

Zorionak Aniaiz!
Gogor egingo dogu hemendik ahalik eta azkarren gure artian egon zaittezten! Maitte Zaittugu! Plaentxiako lagunak eta Arritxatarrak!

Zorionak poxpolin!!
Zoriontsu izan urteko beste egun guztixetan be. Irrifar eta muxu pila lagun danen partetik.

Ariane Criado eta Irea Rascón
Urrian 22xan 10 urte eta Azaruan 6xan 7 urte! Muxu haundi bat, Gorka eta Ikerren partez!

hildakoak

Jabier Mendikute Berriozabal
Gregoria Argarate Arizaga
Celestino Saez Saez
Francisco Alberdi Telleria

Lehiaketa

Aurreko aleko erantzuna

▶ **Irabazlea: Xabat Deza**

▶ **Ruben Garcia,** Kulunka goxodendako jabia da aurreko aleko argazkixan agertzen zan soraluzetarra.

▶ **Zein ageri da argazki honetan?**

▶ **Saria: Txurruka jatetxean 30 euro gastatzeko bonoa**

Nola egin zen ikusi nahi badezu zozketaren ondoren igoko dugu bideoa

Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketa alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da.

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

Argazki zaharra



Iturria: Etzozi Larrañaga

Arratera egunpasa

1968xan Arraten etaratako argazkixa da. Marmitta eta guzti ageri da astua eta haren hanken bittartetik ikusten dira Arratera egunpasa juan ziran plazentziatarrak. Maria Angeles Elizburu hil zala bi urte izan dira urrian 17xan eta haren omenez bialdu dau Etzozik argazki berezi hau.

Argazkixan, ezkerretik eskumara:
Maria Angeles Elizburu ✞, Tere Guenetxea eta Etzozi Larrañaga.
Zutik: Primitibo Etxeberria ✞.

Eskela edo oroigarria aldizkarian ipintzeko,
pasatu bulegotik edo jarri harremanetan gurekin.
943 75 13 04 edo aldizkaria@pilpilean.com

integritatea
Debabarrena gara
www.gurebalioak.com
gurebalioak
DEBABARRENA

Pil-Pileaneko
DISEINU GRAFIKO
ZERBITZUA
OINARRIZKO PAPERDEGIA KARTELAK
ALDIZKARI eta ESKUORRIAK
BINILOAK
ARGAZKIEN
TRATAMENDUA
LOGOTIPOAK
Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe diseinua@pilpilean.com helbidean edo 943 75 13 04 telefonora deituta

Gaztañerre 2011
Azoka

Soraluzen

Azoka Eguna, azaroak 12

09.00etan Baserritarren eta artisauen **azoka irekiera** Ixalaparta-adar hotsekin.

10.00etan Umeendako, **herri-jolas eta eskulanak** Kukumixoren eskutik, Kiroldegiko Frontoian.

Goizean zehar, **Kale animazioa, dantzak, bertsolari ibiltariak...**

15.00etan **Herri babajana**, Plaza zaharreko karpan

(Txartelak: Iratxo, Arrano eta Gaztelupen salgai)

19.00etan **Erromeria** Xero Xiette taldearekin, karpan.

Azaroak 7, astelehena

Auzolanari buruzko solasaldia, "Auzolan Ekimena"ko partaideekin

19.00etan Zine aretoan

Azaroak 8, martitzena

"Trikiketa" soinu txikiaren ibilbideak mundutik zehar, Carles Beldaren eskutik.

19.00etan Zine aretoan

Azaroak 9, eguaztena

Talo ikastaroa, AEK-koen eskutik.

19.00etan Ibai Eder elkartean.

(Izena emateko deitu 943 75 13 84 edo idatzi euskara@pilpilean.com-era azaroaren 7a baino lehen)

Azaroak 10, eguena

Kontsumo taldeak ezagutuz, EHNE eta Biolurrekin

18.30ean Plaza zaharreko karpan

Azaroak 11, astelehena "Gaztañerre eguna"

Ardo dastaketa olio, gazta eta atunarekin, Joserra Atxirianoren gidaritzapean. 20.00etan Plaza zaharreko karpan.

(Sarrerak Bizikaleko komertzioetan salgai).

Euskara ikasleekin **Gaztañerre kantu-afarixa**, Ibai Ederren.

Azaroak 20, domeka

Basarritik basarrira: Soraluzeko Basarrizaleen topaketa.

Egun gaztiko egitaraua

Diseinua: Pil pilean Diseinu Grafikoa